

## 1263 – Irakurketa Errazean materialak sortzeko teknikak

### Informazio orokorra

Data	2026ko irailaren 7, 8 eta 10ean
Orduategia	<ul style="list-style-type: none"><li>• 7an eta 8an: 9:30-13:00</li><li>• 10ean: 09:30-12:30</li></ul>
Lekua	<a href="#">Euskaltzaindiaren egoitza. Donostia</a> (Euskaltzaindiaren eta HABEren arteko lankidetzeta-hitzarmenari esker)_
Iraupena	10 ordu
Ikastaro-mota	Aurrez aurrekoa
Hizkuntza	Euskara
Hartzaileak	Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak, arduradun akademikoak eta herritarrak artatzen dituzten pertsonak. Baita interesaturik dagoen edonor ere, plaza-kopurua bete arte.
Aurrematrikula	2026ko martxoaren 16tik apirilaren 15era
Matrikularen prezioa	38,17 €

### Irakaslea



Nerea Aizpuru Iraola

Nerea Aizpuruak hamar urte daramatza Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Errazaren proiektuan lanean, irakurketak dinamizatzen, arlo guztietako testuak eta informazio irisgarria sortzen zein egokitzen eta gai honi buruzko ikastaroak eta aholkularitza arlo ezberdinetako profesionali ematen.

Hezkuntza-arloan hainbat mailatan eta proiektutan lan egin eta espezializatzen joan da. Besteak beste, Prest Garan, UEUn eta Nafarroako Irakasle Laguntza Zentroetan ikastaroak ematen ditu eta Euskal Herriko hainbat zentrotan ere aholkularitza iraukorreko lankidetzan dihardu.

### Ikastaroaren deskribapena

Irakurketa Erraza formatua irakurtzeko eta ulermen-zailtasunak dituzten pertsonari zuzentzen zaie (herritarren % 30i). Zailtasun horiek, aldi baterakoak edo iraunkorrek izan daitezke faktore ezberdinak gorabehera (analfabetismo funtzionala, desgaitasun intelektuala, dislexia, nahasmendua...).

Irakurketa Errazari esker, ikasleentzako egokiak eta ulergarriak diren informazio eta ikas-materialak sor daitezke eta, hala, ikaslearekin arlo guztietan modu iraukorrean komunikatzeko gaitasuna eskuratu, testu-mota ezberdinak oinarri: ikasketarako testuak, informazio- eta administrazio-testuak, aisialdirako testuak...

Ikastaroan, Irakurketa Erraza tresna zer den eta zertarako balio duen ezagutzera emango da, eta Irakurketa Erraza formatuan idazteko teknikak zein irizpideak landuko dira. Mota askotako adibideak erakustez

gain, ariketa eta praktika ezberdinen bidez, parte-hartzaile bakoitzaren errealitatean ezarri eta erabili ahal izateko moduko testuak landuko dira.

### Helburu orokorra

Ikastaro honen helburua izango da testuak Irakurketa Errazaren (IE) formatura egokitzeko irizpideak ezagutzea eta erabilera horretan trebatzea.

### Helburu zehatzak

- Irakurketa Errazean oinarritutako metodologiak eta gaitasunak eskaintzea, mota askotako materialak egokitu, sortu eta diseinatu ahal izateko. Besteak beste, ikas-materialak, informazio administratiboa, eskutitzak eta idatzizko bestelako komunikazioak.
- Irakurketa Errazeko materialak sortzen eta erabiltzen trebatzea.
- Irakurketa Errazeko materialak oinarri hartuta, ikasleen irakurketa-ohiturak eta testu-ulermena bultzatzeko aholkuak eta dinamikak lantzea.
- Norberak bere materialak sortzea, egunerokoan erabili ahal izateko.
- Sortutako material horiek aztertzea eta hobetzea, Irakurketa Errazeko irizpideen analisiaren eta aplikazio bateratua oinarri harturik.

### Programa

Edukiak	Eskola-ordu kopurua
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Irakurketa erraza (IE) kontzeptua               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioaren irisgarritasuna</li> <li>- Ieren printzipioak, nori bideratuta dagoen</li> <li>- Jatorria eta oinarriak. Araudia</li> <li>- Nola ezarri arlo ezberdinetako informazioetan, dokumentuetan eta euskarrietan</li> </ul> </li> </ul>	<b>1</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ IE materialen erabilerak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakurtzeko, ulermen-zailtasunak errazteko eta irakurketaren estimulazioa</li> <li>- IEko taldeak: IEko materialekin egindako irakurketa dinamizatzea</li> <li>- Hezkuntza-arloko esperientziak</li> </ul> </li> </ul>	<b>1</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ IE materialak sortzeko jarraibideak               <ul style="list-style-type: none"> <li>- IEko irizpideak (IFLA eta Inclusion Europe-ko irizpideak):                   <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Irakurgarritasuna eta ulergarritasuna</li> <li>✓ Edukia</li> <li>✓ Hizkuntza</li> <li>✓ Formatua eta diseinua</li> </ul> </li> <li>- Nola ezarri IEko formatua testu-mota eta euskarri ezberdinetan</li> </ul> </li> </ul>	<b>5</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Irakurketa erraza erabili               <ul style="list-style-type: none"> <li>- IE testu-mota ezberdinetan ezartzeko ariketak</li> <li>- Partaideen jardunean erabiltzen diren testuak egokitzeko praktika: IE praktikan jartzeko norberaren proiektua.</li> <li>- Proposatutako proiektuak bateratzea</li> </ul> </li> </ul>	<b>3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>10 ordu</b>

## Metodologia

Saio bakoitzean, azalpen teorikoak landuko dira, materialak aurkeztu eta aztertuko dira eta iritziak zein zalantzak partekatzeke uneak egongo dira. Horretarako, ikus-entzunezko lan-tresnak eta IKTak baliatuko ditugu, eta, beraz, saioak esperientziak plazaratzeko eta partekatzeke espazioa izango dira. Honela, parte-hartzaileen behar zehatzetara egokitzen diren ariketa praktikokoak egingo dira.

**Ikastaro praktikoa:** eman beharreko teoriak gain, praktikotasuna lehenetsiko da; alegia, xedea izango da ikasleek hainbat irizpide, estrategia eta tresna eskuratzea, beren eguneroko jardunean balia ditzaten.

## Ebaluazioa

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa izango da:

- Irakaslearen ebaluazioan GAI kalifikazioa izatea.
- Gutxienez, % 80ko asistentzia izatea.

## Bibliografia:

Asociación Europea ILSMH (1998) *“El camino más fácil. Directrices europeas para generar información de fácil lectura”*.

[http://sid.usal.es/idocs/F8/FDO19250/lectura\\_facil.pdf](http://sid.usal.es/idocs/F8/FDO19250/lectura_facil.pdf)

Tronbacke, Bror I. y otros (ed.) (2010) *“Directrices para materiales de Lectura Fácil”*. IFLA Professional Reports, 120. zbk. The Hague. Netherlands.

<http://www.ifla.org/files/assets/hq/publications/professional-report/120-es.pdf>

Norma UNE 153101 (2018). *Pautas y recomendaciones para la elaboración de documentos*. EX de lectura fácil

<https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma/?c=N0060036#.WwVKBiC-mM->